

Nork: [Malen Aldalur](#) -Ots 21, 2017

## ETXEZ ETXEKO BANAKETA ZERBITZU PILOTUA ABIARAZIKO DUTE DONOSTIAKO DENDEK


Donostiako dendetako bezeroei erosketak etxera eramateko zerbitzu pilotu bat abiatuko du Donostia Shops elkarteak. Bidalketak bizikletaz egingo dituzte.

Europar Batasunak *CycleLogistics Ahead* proiektua jarri du abian, erosketak guztiz modu sostengagarrian banatzeko, eta Donostiako Udala eta Txita bizikleta enpresa lankidetzan ari dira proiektu hori sustatzeko.

Proiektu pilotu bat da oraingoz, eta martxoaren 3tik apirilaren 4ra bitartean arituko da, eta ezaugarri hauek ditu:

- Etkez etxeko banaketa **bizikletaz** egingo dute. Beraz, auzo hauetan bizi diren bezeroei soilik eskainiko diete: Erdialdea, Parte Zaharra, Gros eta Amara, hau da, 20.001-20.007, 20.010 edo 20.011 posta kodeetako etxeak.
- Proiektuarekin bat egiten duten saltokientzat **zerbitzua doan** izango da probaldian.

[Informazio gehiago hemen.](#)



DONOSTIA SHOPS



MALEN ALDALUR

Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena \*

Email \*

Website



AZKENAK



METRO IGAROBIDEAREN AURKAKO JARDUERA INFORMATIBOAK EGITEN ARI DIRA DBUSEN



IBAETAKO JAIK, IRUDITAN



ARKAIKO TALDE DONOSTIARRAK DISKO BERRIKO AURRERAPEN KANTUA AURKEZTU DU



MAIATZAREN ZANEGINGO DIFEN HERRI

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#)